

# DROGETEN

**ITTURRI**

Ermuko eta Mallabiko aldirakaria  
2025eko MARTXOA · 342 zenbakia

A man with a beard, wearing a black t-shirt and a black apron, is washing a bicycle with a high-pressure hose. The bicycle is mounted on a red metal frame. The man is holding the hose with both hands, and a large spray of water is directed at the bike. The background shows a red metal structure and some greenery. The man's apron has the word "ORRISA" on it. The bicycle has a white sticker with the number "111" and the text "EUSKALAND" above it. A black bucket with water and a sponge is on the ground in the foreground.

**Xabi Goikoetxea,  
afizioa ogibide**





# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, implantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatu.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatu.  
**Autran Institutua. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

**Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak**

**JARRAI IEZAGUZU**

**f Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

# Bertoko kantuak Herritarren ahotik

Gaia: Ume-kantua

## Arre-arre astotxua

(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Arre-arre astotxua  
arre-arre jon-jon,  
traka-traka azkar-azkar  
behar degu jon-jon.



[drogeteniturri.eus](http://drogeteniturri.eus)



**Euskal  
Birusa  
Elkartea**

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)  
[www.drogeteniturri.eus](http://www.drogeteniturri.eus)

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Eneritz Aranburu,  
Estibalitz González,  
Nahia Ruiz Albizuri  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA**

**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Xabi Goikoetxea.

**LAGUNTZAILEAK:**

Ermuko Haurreskola,  
Patxi López,  
Juan Carlos Martin  
eta Valentin Mugarza.

**ARGAZKIAK:**

Nagore Domínguez, Herme García,  
Xabi Goikoetxea, Ander Gómez,  
Estibalitz González, Anakotz Lasarte,  
Mirene Moreno, Valentin Mugarza,  
Mari Fran Olañeta, Nacho del Río,  
Nahia Ruiz Albizuri eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Maren Aguirre, Manex Prieto  
eta Alex Gonzalez.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain  
hartzten aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Mirene Moreno · El Salvador

# “Komunitatean nola bizi den ikasteen ari naiz”

Mirene Moreno ermuarra El Salvadorrera joan zen otsailaren 1ean, “Gazte Enpatia” programaren bitartez ikasketetako praktikak burutzeraz. Maiatzean bueltan izango da Ermuan.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

## Zergatik joan zinen El Salvadorrera?

Gizarte Hezkuntza ikasten ari naiz EHU-n eta azken urtean derrigorrezko praktikak egin behar ditugu. “Gazte Enpatia” programak praktika hauek atzerrian egiteko aukera ematen du: Guatemalan, Nikaraguan, Kolonbian, Saharan eta El Salvadorren, hain zuzen ere. Ni El Salvadorrera etorri nintzen, “Segundo Montes” komunitatera. Mendingo nago, landa-eremu batean, metropolitik kanpo. Oso esperientzia aberasgarria ari zait suertatzen, pertsonalki zein profesionalki.

## Orain dela zenbat joan zinen?


Otsailaren 1ean etorri nintzen eta maiatzaren hasieran bueltatuko naiz Ermura.

## Zein da zure zeregina bertan?

Komunitateko bi ikastetxeetan nago, haurrei edota oraindik arazoak dituztenei irakurtzen eta idazten irakasten, batez ere. Hezkuntzak ezinbesteko funtzioa betetzen du, baina baliabideak urriak dira. Horrez gain, ikastetxe hauetan sexu-hezkuntza emateko tailer bat sortzeko aukeraz hitz egiten ari da: ea aurrera eraman dezakegun! Nerabeen artean haundunaldi gehien dituen Amerika erdialdeko herrialdea baita El Salvador.



**ZUZENBIDE  
KONTUAK**  
Lege eta  
kontu aholkularitza  
Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com



**JULEN**  
**JULEN IZARRA  
GARRAIOAK**  
**Bidegain kalea 1  
48240 BERRIZ  
636 958 339**



**AMAIA  
HARATEGIA**  
**Bertoko Okelak**  
Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
Ermua



**IKASTOLA**  
1968tik Ermua  
euskalduntzen





### Nolakoa da zure egun bat?

Eskolak 7:00etan hasten dira eta han baino lehenago bukatzen dira, baina gero ere lanpetuta ibiltzen naiz. Komunitatean musikarekin harremana duen talde batean sartu naiz, baita aerobik talde batean ere. Bertako emakumeekin batera noa, astean bi egunetan. Gainera, hemen ere Ermuko Gazte Asanbladaren antzeko talde bat dago, astean behin biltzen dena, eta komunitatean zer egin daitekeen pentsatzeko edota ekintzak sortzeko biltzen dira.

### Asteburuetan, zer plan?

Ingurua ezagutzen saiatzen naiz. Hiru hilabete baka-rik ditut eta ahalik eta leku gehien ezagutzen saiatzen naiz. Komunitatean oso sartuta nago eta esperientzia hau ahalik eta gehien gozatzeko saiatzen ari naiz.

### Badago hitzen bat bertan erabiltzen dutena eta hemen ez?

Ba egia da askotan kostatzen zaidala ulertzea zer esaten duten, nahiz eta hemen ere gaztelaniaz hitz egin. Askok gustatzen zait agurtzeko unean “salud!” esaten



dutela. Kaletik zoazenean asko entzuten da.

### Zein da bertako janari tipikoa?

Famatuena eta goxoen dagoena *pupusa* deitzen den janari bat da. *Arepa* antzeko bat da, baina barruan nahi duzuna sartu diezaiokezu, eta plantxan egiten da.

### Zerbaitek harritu zaitu?

Gehien harritu nauena komunitatearen kontzeptua izan da. Orain dela 35 urte gerra zibil bat egon zen, eta mendiko familia batzuk Hondurasera joatea erabaki zuten, errefuxiatu kanpaleku bat sortuz. Hamar urtez egon ziren bertan bizitzen, era autogestionatu batean. Gerora bueltatu, eta oraindik komunitate bezala bizitzen jarraitzen dute. Errepresio handia bizi izan zuen komunitate bat izan da. Min handia dago oraindik, baina oso abegikorrek dira. Komunitatearen kontzeptua oso barneratuta dute eta ni ere komunitateren kontzeptua eta bertan nola bizi den ikasten ari naiz.

# “Gauzak asko aldatu behar dira emakumeak futbolaz bizi ahal izateko hemen”

Nagore Domínguez · Kirol kazetaria



Leioan ikasi zuen Kazetaritza Nagore Domínguezek (Ermua, 2000), eta 2022an Madrilera joan zen Kirol Kazetaritza Masterra egitera. Gaur egun kirol-egunkari digital batean egiten du lan, Madrilen bertan, eta gero eta indar handiagoa hartzen ari den emakumezkoen futbolaren esparruan espezializatuta dago.

Testua **DORLETA VIDAL**

## **Zein izan da zure ibilbidea masterra bukatu zenuenetik gaur egun arte?**

Masterreko praktikak *Relevo* kirol-egunkari digitalean egin nituen 2023ko urtarriletik abendura, eta bukatutakoan lan kontratua eskaini zidaten. Orduetik, bertan egiten dut lan. Hedabide nahiko berria da (2022an sortu zen), eta langile gehienak oso gazteak gara. Nik emakumeen futbola lantzen dut batez ere, hori baita gehien gustatzen zaidana, hobekien egiten dudana eta ezagutza gehien dudana esparrua, baina noizbehinka beste kirol batzuen inguruan ere idatzi behar izaten dut. Horrez gain, beste komunikabide batzuekin ere kolaboratu izan dut, futbolaren zein beste kirol batzuen inguruko edukiak sortzen.

## **Ikasketak eta lana kirolera bideratu dituzu, zalan-tzarik gabe...**

Bai, baina hasieran ez nuen hain argi izan. Ingeniaritza aeronautikoa ikasi behar nuen, pentsa! Gero konturatu nintzen horrek ez ninduela zoriontsu egingo eta, kazetaritza eta kirola gustuko nituenez, bide horretatik jarraitzea erabaki nuen. Ikasketak hasi baino lehen, hainbat webgunetan idazten hasi nintzen, eta horrek mesede egin zidan erabakia hartzeko orduan. Asko gustatzen zait kirola orokorrean: futbola, eskubaloia, motorrak... eta gaztetan Errotabarri EKn jokatzeko nuen.

## **Zertan datza zure lana? Nolako da zure egun arrunt bat?**


Egun guztiak ezberdinak dira, eta ez dago ordutegirik. Gaur, adibidez, Erreginaren Kopako partida garrantzitsua jokatuko da Real Madril eta Bartzelonaren artean, eta jaiki naizenean artikulu bat idatzi dut partida hasi aurretik kaleratzeko. Partida Bartzelonan izango da, baina Madrilen jokatuz gero, futbol zelaira joan beharko nintzateke, partidaren berri eman, prentsaurrekoan parte hartu... Eta horrek ez da lana bukatzen: hurrengo egunerako gaiak pentsatu behar ditut, artikulu batzuk prest utzi... Testu asko idazten ditut eta etengabe daukat lana buruan. Hori oso nekagarria da; ezinbestekoa zait lana eta atsedena bereizten ikastea.

## **Nola daramatzazu zuzeneko emankizunak? Nolabaiteko presioa sentitzen duzu?**

Gaur egun ez hainbeste. Lehen urduri jartzen ninduen erakutsi ahal izateak lan hura egiteko gai nintzela, ondo egiten nuela. Orain lasaiago nago. Prentsaurrekoetan ere antzera, mikroa heltzen zitzaidanean lotsa handia

**"Lehen urduri jartzen ninduen erakutsi behar izateak lana ondo egiteko gai nintzela"**





Nagore Domínguez San Mames futbol zelaiko prentsa-gunean, UEFA Women's Champions Leagueko finalean 2024an.

sentitzen nuen; orain badakit nolako den dinamika, nire hedabideak zer behar duen... lasaiago nago.

**Noiz hasi zinen emakumeen futbolari jaramon egiten?**

Uste dut txikitatik arantzaxo bat daukadala gai horrekin. Nik neuk futboleko jokatzeko nuen, baina bozkatu egin zen liga mistoan sartu edo ez, eta emaitza ezezkoa izan zen, horregatik hasi nintzen eskubaloian. Akaso horregatik, urteak daramatzat emakumezkoen futbola jarraitzen, eta Ermuan bizi nintzenean Eibar, Real Sociedad eta Athleticen partidak ikustera joaten nintzen. Kazetaritza dagokionez, duela urte batzuk ustiari gabeko merkatu-hobia zen, eta zorionez esparru horretan jarraitu dut, espezializatu naiz, eta nire lekutxoia egin dut, izen ona nolabait esateko. Bide horretan asko erabili izan dut Twitter (@nagoredomnguez\_), bertan emakumeen futbolaren inguruko komunitate handia baitago: partidak komentatzen ditut, jendea ezagutu... Izan ere, han ezagutu nuen gaur nire nagusia dena *Relevon*.

**Zein da emakumezkoen futbolaren egoera gaur egun?**

**Askok aldatu da azken urteotan?**

Talde batzuk asko profesionalizatu dira: Real Madril, Atletico Madril eta, batez ere, Bartzelona. Bartzelonak 2015ean ekin zion emakumezkoen futbola bultzatzeari eta egin duen azken fitxaketa 500.000 eurokoa izan da: pentsaezina gainontzeko taldeentzat! Beste klub historiko batzuk (tartean Athleticen eta Realak) aspaldi egin



Manchester Cityko jokalaria den Jill Roord elkarrizketatzen.

zuten emakumezkoen futbolaren aldeko apustua; baina gainontzeko guztietan asko falta da: belar artifizialeko futbol zelaietan jokatzeko jarraitzen dute, soldadak oso baxuak dira eta beste lan batzuekin uztartu behar dute futbola... Espainiako Ligan gauzak asko aldatu behar dira emakumeen futbolaz bizi ahal izateko. AEBtan eta Ingalaterran egoera askoz hobea da, esaterako.

**Zertan ezberdintzen da emakumezkoen eta gizonen futbola?**

Gizonezkoena bizkorragoa da, intentsoagoa, fisikoa... eta emakumezkoena motelagoa da, eta agian ez da hain ikusgarria. Dena den, urteekin emakumeen teknika ere asko hobetu da, eta kalitate handia dago.

**Kazetariak esparru horretan lan egiteko interesa dute gaur egun?**

Gero eta kazetari gehiagok, bai. Espainiako selekzioak Mundiala irabazteak ere agerikotasuna eman dio kirol honi, baita Bartzelonak azken urteotan irabazitako

**Nor da zure erreferentzia kazetaritzan?**  
Nire nagusia den Sandra Sánchez Riquelme, eta motorren munduan dabilen Izaskun Ruiz.

**Eta futbolaren munduan?**  
Alex Morgan eta Alexia Putellas.

**Zein taldekoa zara?**  
Eibar SDko bazkidea nintzen Madrilerako etorri nintzenera arte, eta txikitatik Bartzelonako jarraitzailea izan naiz. Ez dut ezkututzen baina, kirol munduan lan egiten dudanetik, ez dut horrenbestetan agerian jartzen



**MARIA NIEVES  
ANTXUSTEGI AZPIRI**  
2025eko martxoaren 5a

*Euskal Birusa Elkarte Kulturala*







Domínguez Errotabarri EKn partida jokatzen.

Europako txapelketa eta Champions Leagueak ere.

### Zer diozu ikusleei buruz?

Gero eta jende gehiago doa futbol zelaietara, baina ez dauka zerikusirik Ingalaterrako Ligarekin, esaterako. Han emakumeek estadio handiagoak betetzen dituzte, eta hemen, ez bada oso partida garrantzitsua, jendea ez da joaten. Dena den, azkenaldian kazeta-

**"Ikusle batzuk gizonezkoen futbolearen dauden ohiturak hartzen ari dira: iraintzea, hain zuzen ere"**

riok komentatzen dugu ikusleen artean gizonezkoen futbolearen dauden ohiturak hartzen ari direla batzuk —arbitroak eta jokalariek iraintzea, hain zuzen ere—, baina momentuz behintzat, ez da ohikoa.

### Atzerriko ligak ere jarraitzen dituzu?

Bai, nahiko frikia naiz, egia esan. Gustatzen zait nazioarteko futbola ikustea, eta batzuetan kaleratzeko moduko gai interesgarriak topatzen ditut. Kasu horietan baloratu behar dugu gai horiek zerbait ekarriko diguten bueltan...

### Likeak, bistaratzeak, iruzkinak eta gisa horretako feedbackari buruz ari zara?

Bai, ez da irizpide bakarra, baina kontuan izaten dugu, bai emakumezkoetan bai gizonezkoetan. Gaur egun oso erraza da jakitea zerk sortzen duen interesa eta zerk ez, eta horrek bidea markatzen dizu, nahiz eta gu istorioa ezberdinak eta bereziak argitaratzen saiatzen garen.

### Harreman ona dago hedabide ezberdinetako kazetarien artean?

Bai, orain dela gutxira arte nire erreferenteak zirenak, orain lankideak dira, eta denborarekin elkar ezagutzen joan gara. Lagunak gara, nolabait esateko, eta elkarrekin afaltzen dugu askotan, baina argi dago informazio bat jasotzen baduzu ez duzula eurekin partekatuko..., oreka horretan mugitzen gara.

### Nola ikusten duzu zure burua hemendik urte batzuetara?

Gustatuko litzaidake emakumezkoen futbolari lotutako kazetaritza hazten jarraitu, erreferente bihurtu, nazioarteko eta mundu mailako partiden berri eman, bidaiatu... Dena den, ez nuke izango arazorik beste kirol batzuk lantzeko: hausnarketa horretan murgilduta nago azken asteotan.





Zatoz ate irekietara!

MAIATZAK 6



AUKERARIK  
ONENA,  
ETORKIZUNA  
DUENA

# “Dokumental honekin nire bizipenei zentzu bat emoten deusiedala sentitzen dot”

Anakotz Lasarte · Aitatxo dokumentalaren atzean dagoen aitaxo



Haurdunaldixek, batzuk; besuetan ume bat, Inhar. Iratxe Uribelarrea eta Anakotz Lasarte ezagunek die gure inguruen. Baitte Euskal Herri mailan be, herixotza perinatala bizi izen daben gurasuen artien batez be. Urtebete sabatikue hartu dau Anakotzek proiektu bat aurrera ataratzeko, Aitatxo dokumentala. Gari eta Ekai semien herixotzek eraginddeko momentu latz eta polittek pantailara dakartza azken urtiotan ezagututeko pertsonekin batera. Heriotzaren eta doluaren inguruen barruek hustu eta bizipenak kontatzeko dokumentala. Martxuaren 25ien amaituko da aurrekontuaren %30a izengo litzaken 6.000 euruek lortzeko Verkami-n abiarazi daben online kanpaina.

Testua **ENERITZ ARANBURU**

## Zer dala eta dokumental bat, Anakotz?

Nire aitatasun esperientziagaittik, gure seme nagusixen herixotzengaittik. Gari haurdunaldixen galdu gendun 2014en, istripu bat lez izen zan. 2017xen Ekairen haurdunaldi oso gogorra eta gero, jaiotza traumatikue izen zan. Gurutzetan operatu egin biher izen ebien bihotzetik eta bertan hil zan. Gurutzetan jasan gendun tratue oso txarra izen zan eta Iratxe ondiño zesareako puntuekin eguela, borondatzeko alta eskatu eta etxera bueltatu ginen. Bigarrenez, ume barik. 2020xen Inhar jaio jakun eta oin dokumental honi esker, nire bizipenei zentzu bat emoten deusiedala sentitzen dot.

## “Seme-alaba baten heriotza-galera aitaren ikuspuntutik” dau izenburue

Iñaki Peña mediku paliatibistaren bittartez Aretxabaleako Arteman produktorekin ipini nitzen harremnetan. Gidoi bat egin neban, nire ideie aurkeztu neutsien eta aurrera doie proiektue. Maiatzetik ekainera bittartien grabatuko da eta uztailien bukatu. Irailien proiektatzen hasteko asmue daukau. Dolu perinatalaz



Anakotz Lasarte, Iratxe Uribelarrea bikotekidie eta Inhar semetxue.



## "Gidoi bat egin neban, nire ideie aurkeztu neutsien eta aurrera doie proiektue"

## "Dolu perinatalaz gain beste dolu batzuk be lantzen die dokumentalien"

gain beste dolu batzuk be lantzen die dokumentalien. Hiru familixak emongo dabe euren testigantza; Mikel eta Irene, 3 egunekin hil zan Danelen gurasuek; Igor eta Yolanda, 6 urte eukezala leuzemiakin hil zan Agerren gurasuek eta Fernando eta Amaia, bihotzeko baten ondorioz hil zan 32 urteko Larraitzen gurasuek. Gure dolu-terapeuta izen da Izaskun Andonegi eta kasu bakotzeko Osakidetza medikuek be emongo dabe euren testigantza dokumentalien. Helburu bi daukez proiektu honek, batetik aitaren momentue dala, aitak bere ikuspuntue emon daixela. Aitarena dolu desautorizatie dala esaten dau gure terapeutak, arrazionala. Amarena emozionala, beraz aitaren ikuspuntue atara nahi dogu arrazionaletik emozionalera. Eta bestetik, doluen dauezan familixei ikustaraztie holako herixotza baten ondoren lortu leikela bizitza duin bat eittie eta bakien egotie. Galera betiko da, baina bakie lortu leike..

**Dolu desautorizatie, baztartue, ikusten ez dana dala**



### dinozu aitarena...

Ni gure seme bakotxaren herixotzan aurrien bakarrik eta baztartute sentidu naz. Gizartiek amangana joten dau babesa emotera aitte ahaztute, hori sentidu dot nik behintzet. Gizonok sostengu gara, indderra eta kemenaren arketipue gara. Geuk babestu biher dogu ama, ahule dalako baina guztiz aldrebes dala uste dot nik. Ni markau ninddune, Ekai galdu gendun hurrengo egun baten mallabittar oso jator bat Iratxengana hurbildu, 2-3 minutu egon, eta niri begittu be ez egittie izen zan... ikusezin sentidu nintzen, baztertute, bakarrik. Entzun izen doguz "bueno, pasauko da, gogorrak zarie, etorriko da beste bat..." eta holako komentarixo mingarrixek. Ezjakintasunetik egitten die, intenzino

**Trastelekuak  
partikularrentzat**




**Biltegiak  
enpresentzat**

Gipuzkoa etorbidea 19 · Ermua  
621 325 477 / [info@lekubox.com](mailto:info@lekubox.com)  
[www.lekubox.com](http://www.lekubox.com)

**DG**  
Horacio Decoración  
TAPISERIA - ALIZARIAS - OSAGARRIAK



VI Centenario 10 · Ermua  
943 03 15 80 / 688 61 06 38  
[www.dghoraciodecoracion.com](http://www.dghoraciodecoracion.com)

**Jon Albizu  
Ainhoa M. Goitandia**

Extremadura zeharbidea z/g  
**48260 ERMUA (Bizkaia)**  
Tel.: 943 174 505

## "Hor konturetu nitzen barruen neuken mine ataratzeko alkohola erabiltzen hasi nitzela"

## "Ondiño be tabu bat lez da aitaren dolue, plazaratu egin biher dala uste dot"

txarrik barik, baina askotan hoba da keinu zintzo bat mile berba baino. Eta bizitzie aurrera doie edo inertziak erueten zaittu. Denpora batera lanera eta bakotxa bere arratsaldetako zereginetara bueltatu ginen. Ni astien arratsalde biten bakarrik geratzen nitzen etxien, Iratxe abesbatzeko ensaiuetara eta kantatzera jueten zalako. Nire zereginiek etxeko biherrak ein, jatekuek prestatu eta abar izeten zien, eta bide batez arda kopatxo bat hartzen neban. Bigarrena hartzen nebanetan negarra etortzen jatan begire. Behin 6-7 izen zien arte. Mozkorku ein nitzen, Iratxe 22:00etan heldu zaniien, lotsatue ohera juen nitzen. Hor konturetu nitzen barruen neuken mine ataratzeko alkohola erabiltzen hasi nitzela, ez asko, baina arriskue ikusi neban.

### Eta orduen konturetu zinen laguntzie biher zendule?

Bai, Ekai galdu eta bi urtera. Nire mine atara, ulertu eta protagonista izetie biher neban. Izaskun Andonegi, dolu-terapeutarengana jo gendun Donostire, 2019xen hasi eta 2020 osue egin gendun. Ni oso berbatsue naz eta Izaskunek liburu bat idazteko esaten eusten. Neure gogoetak idazten dittut eta niretzako bake momentu bat da idazte hori, baina ez liburu bat. Dokumentalak dittut nahixago, adibidez Iñaki Otxoa de Olzarena oso politte da. Bertan esaten dau "heriotza bizitzaren parte da, bizitzak heriotza barik ez dauke zentzurik". Terapiian gengozala izen zan Inharren haurdunaldixe, 2020ko abuztuen jaixo zan. Iratxek ordureko bere bidie hasitte euken, Bidegin eta Esku hutsik elkartietan



Iratxe, Anakotz eta Inhar etxe aurrien.

parte hartzen hasi zan eta hori bere bidie zan. Elkarte horreetan amak batzen ziren gehixen bat, aita bakanen bat baina gitxi. Ni oso kritiko izen nitzen horrekin, nun dau aita? Zer die honek, familien elkartiek ala amen elkartiek? Nik nire espazio bat biher nebala sentitzen neban. Aitarena dolu desautorizatu bat dala esaten dau Izaskunek, dolu arrazionala da eta amarena emozionala. Ondiño be tabu bat lez da aitaren dolue, plazaratu egin biher dala uste dot eta hori lortu nahi dogu dokumental honekin.

**Ferreteria**  
**ANBOTO**  
**Burdindegi**

Orain  
**KOTXEKO GILTZEN**  
**KOPIAK** ere  
egiten ditugu

943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25  
ERMUA (BIZKAIA)

www.ferreteriaanboto.es

Bitsi-denda Tailer propioa Ertza-denda

**Senén**  
1978

Diseinuak eta kalitateak  
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidetara 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

**hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak  
eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g. 941010527



## Igor Olalderi omenaldi herrikoa egingo zaio apirilaren 12an

2024ko azaroaren 17an zendu zen Igor Olalde Aguirregomezcorta "Ardanza" mallabitarra, eta haren senideek eta lagunek omenaldi herrikoa egingo diote apirilaren 12an, larunbata. Eguerdian trikipoteoa egingo da herriko kaleetan barrena, eta bukatutakoan Herriko jarriko den argazki erakusketari esker, "Ardanza" gogoratuko dute bertaratzen direnek. Horren ostean bazkaria egingo da leku berean, eta 70 lagun bilduko dira bertan (martxoan zehar bazkarian izena emateko aukera egon da, baina leku guztiak bete dira jada). 18:30ean omenaldia egingo zaio, herriko bertsoariak eta abeslariak girotuta, eta egunari bukara emateko, hiru kontzertu egongo dira 19:00etatik aurrera: Jacintones, Pladures eta Santa Bárbara taldeekin.

## Karmele Gisasolaren lana jaso dute "Euskadiko landa emakumeen begirada" txostenean

Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta, landa-ingurune emakume ekintzaileen 21 historia biltzen dituen txostena argitaratu du Meneko Federazioak, hau da, Euskadiko Landa Garapen Elkartearen Federazioak. "Euskadiko landa emakumearen begirada" da proiektu honen izena, eta haren helburua da landa-eremuko emakumeek Euskadiko landa-eskualdeen garapenean duten zeregin garrantzitsua indartu, balioetsi eta ikusarazi: "Horretarako, 21 emakumek beren negozioaren atea zabaltu dizkigute, bere bizi eta ekonomia proiektua nola eta zergatik sortu

### KARMELE GISASOLA ZENIKAZELAIA




Karmele Gisasola Zenikazelaia 30 urteko dibulgazio arloko ikaria da 2023ko urterik aurrera hant, jostaleria eta sartzeri leku. Mallabian ibiltzen dagoen Jolai lasterretan hantzeriaren uztartzen dugu. Jolai 30 urtearen, hantzeriaren Euskal Herriko emakume hantzeriaren Txostenean irabazi izan du behin baino gehiago. Bere arlo, Jose Antonio Gisasola (Dona Lili) hantzeriaren emakumeen arloa, Herri Gisasola hantzeriaren arloa da, emakumeen arloa honetan leku onak erakutsi. Duela bi urteko hona, leku onak arloa erakutsi izan du proiektu baten bidez eta onak irabazi duen bidez irabaztu du. Bere arloa jai zuzen martxoan, emakumeen biziaren arloa da eta orain bertan jarraitzen du.

duten kontatzeko", adierazi dute arduradunek. Tartean, Karmele Gisasola mallabittarraren ibilbidearen eta egungo zereginaren barri irakurri daiteke.

**Eibar BHI**  
<https://eibarbhi.hezkuntza.net/eu/>  
 BATXILERGOA  
**AUREMATRIKULA**  
 Martxoaren 31tik  
 apirilaren 11ra

**Jardiñeta, 3 B**  
**943 89 92 62**

**ATE IREKIAK martxoaren 25ean, 18:00tan**  
 Ikastetxea ezagutzeko eta informazioa jasotzeko,  
 eman izena jardinetazuzendaritza@eibarbhi.eus helbidean



Irulitxako etxeen ostea parketik.  
Argazkilaria: Nacho del Río





**INGENIARITZA  
DUALAREN ESKOLA**  
ESCUELA DE  
INGENIERIA DUAL

erria ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



## Markel López Vasco

Elgoibartarra. 22 urte.

**Berrikuntzako Ingeniaritza Duala**  
Ikasle ohia

### Berrikuntzako Ingeniaritza Gradu Duala amaitu berri duzu. Esan ahal diguzu zergatik aukeratu zenuen Elgoibarko Ingeniaritza Dualaren Eskolan ikastea?

Batxilergo zientifiko-teknologikoko ikaslea nintzela, banekien ingeniaritza ikasi nahi nuela, arloarekiko nuen interesagatik eta eskaintzen dituen lan-aukera onengatik. Hiru arrazoi nagusirengatik aukeratu nuen karrera hau: berrikuntzan nuen interesagatik (soluzio berriak sortu, hobetu edo diseinatu); eredu dualagatik (karrerako bigarren urtetik lan eginez nire laneratzea erraztuko zelako); eta unibertsitatea bizi naizen herrian bertan edukitzearen erosotasunagatik.

### Nolako esperientzia izan da?

Positiboa, eta aldi berean, trinkoa. Positiboa, ia hasieratik izan dudalako harremana enpresarekin. Horrek lagundu dit ikasitakoa ulertzen, eta baita ere bizitza errealean ikusten teoria hori praktikan aplikatzen dela eta nola. Bestalde, gogorra izan da, karrera honek dakarren lana eta dedikazioagatik: Hiru egun lanaldi osoan lan egitea eta beste bi egunetan 8 ordu ikastea gogorra da, eta horri gehitu behar zaizkio ordutegi horretatik kanpo egunean eraman behar dituzun lan eta proiektu guztiak.

### Espero zenuena bete al da? Zure espektatibak bete al dira? Zerbait aldatu zen lau urtez ikasten egon ondoren?

Bai, neurri handi batean. Ikasketa praktikoa espero nuen, eta proiektuen bidez lortu dut hori. Gainera, karrera amaitu aurretik lan esperientzia irabazi dut. Bestalde, karreraren edukietan espezializazio handiagoa espero nuen, baina lau urteren ondoren konturatu naiz ingeniaritza hainbat arlotan arazoak konpontzeko ezagutza teknikoak eta trebetasunak irakasten dizkizun karrera dela, eta benetako espezializazioa lan esperientziarekin batera iristen dela.

### Lan esperientzia izateko aukera eman dizu Eredu Dualak. Berrikuntza proiektuetan lan egin duzu. Zure ustez, lagungarria izan al da amets profesionalak betetzeko?

Eredu dualari esker, enpresetan dauden benetako arazoak ikusi ahal izan ditut, baita horiek aurre egin ere, trebetasun teknikoak eta arazoak ebaztekoak garatuz, praktikak bakarrik eskain dezakeen moduan. Beraz, helburu profesionaletara hurbiltzen lagundu dit, ikasketak lan esperientziarekin eta mundu profesionaleko arazoei aurre egiteko prestakuntza hobearrekin amaitu baititut.

## Berrikuntza Ingeniaritzako ikasleen bizipenak

### Zein enpresatan garatu duzu zure profil profesionala? Azaldu ahal dizkiguzu zure ikerketa Zientifiko Teknikoa eta IZT Gradu Amaierako Lana?

Goizper S. Coop. enpresan egin dut duala, eta han garatu dut profil profesionala, produktu-ingeniari gisa. Goizperren produktu baten osagai mekaniko nagusien higadura goiztiarraren arazo bati aurre egitea izan zen nire 3. mailako IZTa, zehazki biraketa-mahaietan, horiek abiadura handian biratzen hasten zirenean. Proiektu honetan, arazo honi buruzko artearen egoeraren ikerketa bat egin behar izan nuen, produktuan egon zitezkeen aldaketak edo hobekuntzak planteatzeko. Hobekuntza horiekin gero balioztatzea egiteko, nire kasuan esperimentala, Goizperrek entsegu banku bat baitu produktuak entseatzeko. IZT horri esker, zenbait muga identifikatu ziren osagai mekanikoetako baten diseinu geometrikoan eta produktuaren osagaien zehaztasunean. Hori dela eta, Goizperrek aplikazio azkarretarako biraketa-unitateen familia berri bat garatzea erabaki zuen, merkatuaren abiadura eta zehaztasun eskakizunak gaintzeko. Testuinguru horretan, 4. mailan, nire GRALak jarraipena egin zion IZTri, eta produktuaren analisiari ekin nion, baita familia berriaren tarteko tamainetako baten kalkuluari eta diseinuari ere.

### Atzerriko lan praktika egonaldia ere egin duzu

Goizper France enpresan izan nintzen ia hiru hilabetez, bezero frantziarren eskaerak garatzen eta diseinatzen, eta arazo teknikoak konpontzen. Egonaldiak lagundu zidan profil profesionaleko gaitasun batzuk hobetzen, lanerako autonomia handiagoa hartzen eta lanikide teknikari komertzialen profila ulertzen. Maila pertsonalean Frantziako desberdintasun kulturaletara egokitu nintzen, eta ingelesezko komunikazioa landu nuen.

### Gradu hau ikastera nor animatuko zenuke?

Ingeniaritzaren alorrean interesa duten mutil zein neska animatuko nituzke; prestakuntza praktikoa nahi dutenak eta laneratze ona ziurtatzeko beren lanarekin konprometituta daudenak.

## Gehiago jakin nahi?

Zatoz apirilaren 5eko  
ateak irekitzeko ekitaldira



# Zabalik dago Euskaraldian izena emateko epea

Gero eta gertuago daude Euskaraldia eta Ermuan Bagara; izan ere, aldi berean burutuko dira biak: maiatzaren 15etik 25era bitartean. Ermuko Euskaltzaleen Sareak lanari ekin dio, eta martxoaren 15ean Euskaraldiaren Hamaikakoa aurkeztu zuen (ondoko orrian ikusgai). Laster, gainera, Ermuan Bagarako kamisetak jarriko dituzte salgai egun eta toki ezberdinetan.

Euskaraldian parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete izenematea.euskaraldia.eus webgunean, eta bertan Ahobizi eta Belarriprest rolen artean aukeratu beharko dute. Antolatzaileek gogorarazi dute "bata edo bestea aukeratzera, gakoa erabileran



dagoela, ez gaitasunean". Gainera, Euskaraldiko gune ibiltaria martxoaren 21ean egongo da Ermuan, Patxi plazan, 17:00ak eta 20:00ak bitartean. Bertan, izena emateaz gain, Euskaraldiko produktuak erosteko aukera egongo da.



**Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut une oro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut.**



**Aldiro erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet modu esplizituan.**





Euskaldien  
hamaitakoa



Alberto Arginzoniz



June Aranberria



Raul Pelayo

Argazkiak: Ander Gómez.



Mainer Mojon



Abdelhay El Idrissi



Irune Mugertza



Julen Gutierrez



Lorea Gaston



Joxe Gallardo



Axpe Aja



Ibaibarriaga



Debabarrena

GOURMET

Martxoaren 28tik apirilaren 13ra

7 plateraz osatutako dastatzeko menua

65€

Baratze - Belaustegi - Kanala  
Pikua - Txurruka - Urgain



# “Bizikleten munduko frikia naiz txikitatik, hau da nire esparrua”

Xabi Goikoetxea Goiogana · Euskadi Fundazioko mekanikoen koordinatzailea



Txikitatik izan du lotura Xabi Goikoetxeak (Ermua, 1994) bizikletarekin, eta gaur egun ere mundu horretan dihardu, baina mekanikaren esparruan, Euskadi Fundazioa taldean. Egunotan Txinan harrapatu dugu, martxoan burutu den Taiwaneko Tourrean.

Testua **DORLETA VIDAL**

## Zer dela eta hasi zinen mekaniko bezala?

Duela 10 urte inguru txirrindularitzan lehiatzeri utzi nion, lesio baten ondorioz. Txikitatik gustatu izan zait mekanikaren mundua eta bizikletak konpontzea, eta anaia Peioren taldean hasi nintzen lanean mekaniko bezala, Ampo taldean, hain zuzen ere.

## Gaur egun zein taldearentzat egiten duzu lan?

Euskadi Fundazioan egiten dut lan, eta bertan dauden hiru taldeetako mekanikoen koordinatzailea naiz: Euskaltel-Euskadi (gizonezkoen taldea), Laboral Kutxa-Euskadi (emakumezkoena) eta Euskadi Fundazioa, 23 urtez azpiko txirrindulari amateurak batzen dituen. Lasterketetan, aldiz, Euskaltel-Euskadi taldeaz arduratzen naiz. Talde hau UCI Zirkuitu Kontinental profesionalen mailan dago gaur egun, bigarren maila izango litzatekeena.

## Zenbat urte daramatzazu bertan?

Zazpi urte. Aurretik hiru urte eman nituen Caja Ruralen, baina giroz aldatu nahi nuen eta Euskaltel mekaniko bila zebiltzanez, eta anaiak ere bertan lan egiten duenez, neure burua eskaini nuen eta kontratu egin ninduten berehala.

## Euskadi Fundazioa taldeko mekaniko guztien ardura daukazu. Zenbat lagunek osatzen dute lantaldea?

Hiru taldeen artean hamaika bat mekaniko izango





## "Txirrindulari bakoitzak lau bizikleta ditu, beraz, 160 bizikleta montatu behar ditugu urtean"

## "Allen giltzak ezinbestekoak dira niretzat. Beti daukat baten bat poltsikoan"

gara, eta guztira berrogeita hamabost txirrindulari daude (Euskaltel-Euskadin hogeita bat, Laboral Kutxan hamalau eta gazteen taldean hogeit). Lasterketetara zazpi txirrindulari eta bi mekaniko joan ohi gara. **Zeintzuk dira koordinatzaile bezala egiten dituzun lanak?**

Gure bizikleten markekin harremanetan egon behar naiz, bizikleta osatzen duten atal guztien materialaz hornitu behar garelako. Kontuan izan behar da txirrindulari bakoitzak lau bizikleta dituela, beraz, guztira 160 bizikleta inguru prestatu behar ditugu. Montajea urte hasieran egiten dugu, bizpahiru mekanikoren artean. **Eta lasterketetan zein lan egiten duzu?**

Lasterketa egunetan, gauean egiten dugu bizikleten mantenua eta azterketa, eta goizeko lana erroberak puzteak bakarrik izaten da gehienetan. Bestalde, txirrindulariak lasterketan dauden bitartean, haien ondoan joaten gara kotxean, eta matxuraren bat baldin badago edo gurpilen bat zulatzen bada, ahalik eta lasterren konpontzen saiatzen gara. Bukatutakoan, dena

jaso, hotelera iritsi, kotxeak eta bizikletak garbitu, eta bizikletak erreparatzen ditugu, hurrengo egunean dena prest izateko.

**Lasterketetan gizonezkoen bizikletak prestatzen dituzun arren, emakumezkoentzat ere lana egitea tokatu izan zaizu. Lan ezberdina da?**

Ez, berdin-berdina, bizikletaren neurria da aldatzen den gauza bakarra, baina egin beharrekoa ez da aldatzen.

**Zein erreminta da ezinbestekoa zure egunerokotasunean?**

Allen giltzak. Beti daukat baten bat poltsikoan eta, egunero hotelera bueltatzen naizen arren, askotan mesanotxean lagatzen dut hurrengo egunerako.

**Formakuntza berezia duzu mekanikaren esparruan? Beharrezkoa da etengabeko formazioa?**

Gaur egun ikastaro asko daude bizikleten mekanikari buruzkoak, baina nik neure kabuz ikasi izan dut ia dena, txikitatik: besteek nola egiten zuten ikusita eta, batez ere, nik neuk etxean trasteatzen. Dena den, azken hamar urteotan bizikleten mundua asko aldatu da, eta orain teknologia berriak erabiltzen dituzte. Martxa-aldagailuak elektronikokoak dira, esaterako, eta lan batzuk ordenagailuarekin egin behar izaten ditugu, aldagailuen eta frenoen bateria kargatu behar da... Lehen dena zen mekanikoa.

**Mekanikoa edo elektronikoa, zer nahiago duzu zuk?**

Gauza batzuetarako hobeia zen aurrekoa: zerbaiz apurzen bazen, berehala antzematen zenuen. Orain ez da hain erraza eta atal ezberdinak banan-banan begiratu behar dituzu.

**Mekanikoen lanak eragina izan dezake txirrindulari**



**ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA PALACIOS SM**  
 ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA  
 GREMIOEN KUDEAKETA  
 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
 San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)  
[info@palaciosfontaneria.com](mailto:info@palaciosfontaneria.com) / [www.palaciosfontaneria.com](http://www.palaciosfontaneria.com)  
**660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23**

**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISETATAN**  
 Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

## "Azken hamar urteotan asko aldatu dira bizikletak, eta orain teknologia berriak dituzte"

### baten garaipenean?

Neurri batean bai, jakina. Mekanikoez eta laguntzailerik 24 orduz egiten dute lan txirindulariarentzat, eta txikieria eman dezakeen arren, disko-balazta apur bat ezkerrean edo eskumara egoteak, esaterako, garrantzi handia izan dezake. Dena den, taldeko kide guztien lanak dauka garrantzia: masajistena, sukaldariena...

### Bizikletak konpontzeaz gain, harremana duzue txirindulariekin?

Bai, egunero hitz egiten dugu, ordu asko ematen ditugu elkarrekin.

### Badaude txirindulari batzuk bereziki exijenteak direnak?

Bai, denetik dago. Batzuk edo zerrekin konformatzen dira, eta beste batzuk oso bereziak dira, jasangaitzak! Egunero esaten dizute zerbait milimetro bat mugitu behar dela! Azkenean uste dut izaera kontua dela...

### Zer da zure lanaz gehien gustatzen zaizuna?

Bizikleten munduko frikia naiz txikitatik, eta lasterketak eta sailkapenak ikusten egon naiteke egun osoa. Hau da nire mundua, eta asko gustatzen zait.

### Eta gutxien?

Egun asko ematen ditugula etxetik kanpo, eta gauza askotaz gozatzeko aukera galtzen dugu. Lan hau asko gustatu

behar zaizu, bestela ez duzu astebete irauten... Urtean 140 egun ematen ditut etxetik kanpo (bi, hiru edo lau aste jarraian), eta denboraldia bukatutakoan, neguan, hilabete egoten naiz etxean. Lan honek alde onak eta txarrak ditu, lan guztiek bezala, baina gaur gaurkoz konpentsatzen dit.

### Badaude bidaiak batzuk beste batzuk baino gehiago gustatzen zaizkizunak?

Egia esan, materiala kamioarekin eramaten dugunean, Italiara edo Esloveniara adibidez, bidaiak oso astunak dira, ordu asmo ematen ditugulako errepidean. Egunotan, aldiz, Taiwanen nago, eta mota honetako bidaiak asko gustatzen zaizkit. Hemen gauzak sinpleagoak dira, txoko bat topatu behar duzu bizikletak konpontzeko, garbitzeko... bizirautea da kontua! Ustedut lan egiteko baldintzak zenbat eta okerragoak izan, orduan eta gehiago gozaten dudala.

### Urte hauetan, zein herrialdetan egon zara?



Xabi Goikoetxea, lehenengoa eskumatik hasita, hainbat lankiderekin Taiwaneko Tourrean.

**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre 20 · ERMUA · 943 170305

HARATEGIA - URDAITEGIA

**MIGUEL**

BERTAKO OKELAK

ETXEEN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK

PROBLEKU 3 - 943 170565 ERMUA

Psikologia  
Ongizate pertsonalerako zentroa

**GUZTIOK**

Nahia Rojo Bustindui  
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua  
Hitzorduak: 688 85 18 95



**"Urtero 140 egun ematen ditut etxetik kanpo, eta neguan hilabeteko oporrak izaten ditut"**

**"Hizkuntzetan hutsaren hurrengoa naiz, baina ez naiz sekula galdu, nahi dudana lortzen dut beti"**

Besteak beste, Japonian, Txinan, Malaysian, Turkian, AEBetan, Norvegiar eta Europa guztian. Izan ere, txirrindularitzaren erreferentzia-gunea Europa da (Italia, Belgika...) eta herrialde asiarrak ez dira oso ohikoak, baina bizikletak eta material asko hemen egiten direnez, lasterketak ere antolatzen dituzte. AEBetan, aldiz, sekulako gainbehera egon da azken laupabost urteotan. Garai batean lasterketa garrantzitsuak egiten ziren bertan, baina gaur egun ia ez dute ezer antolatzen.

**Ondo moldatzen zara beste hizkuntzetan?**

Hizkuntzetan hutsaren hurrengoa naiz, baina urte asko daramatzat munduan zehar eta ez naiz inoiz galdu: hizkuntzak nahasten edo keinuen bitartez nire helburua lortzen dut beti!

**Horrenbeste egun etxetik kanpo emanda, lankideok familia txikia osatuko duzue...**

Bai, duela hamar urte bizpahiru pertsona ezagutu nituen gaur egun nire taldean daudenak, eta familia bezalakoak dira. Izan ere, lan honetan lankideekin harreman ona ez baduzu, jai daukazu! Egundako pasatzen ditugu elkarrekin, eta aisialdia ere partekatzen dugu.

**Anaiarekin lan egiten duzu?**

Zuzenean ez, bera emakumezkoen taldeko kirol-zuzendaria delako gaur egun, baina harreman estua daukagu. Egundako hitz egiten dugu eta taldeen eta lasterketen inguruko informazio guztia partekatzen dugu.

**Nola ikusten duzu zeure burua hemendik urte batzuetara? Bizikleten munduari lotuta jarraitzeko asmoa duzu?**

Beti esaten dut ez dakidala beste ezer egiten, baina egia esan ez nuke arazorik izango beste zerbairetan lan egiteko. Hemendik bi urtera edo urtebetera zer? Ez dakit. Gauzak momentu batetik bestera aldatzen dira.

LABORAL  -k eta AMA  -k aurkezten dute:

# BABESLEAK

Partekatutako balioetan oinarritutako harremana.

**LABORAL Kutxan eta AMA Tolosan bat gatzogure lurra eta nortasuna babesteko konpromisoarekin.**

Eta, espiritu horrek bultzatuta, **oso zozketa berezia** egingo dugu:

AMA Tolosako **4 esperientzia gastronomiko** eta **2 laguntzako gau bateko egonaldia nekazaritza-turismoko establezimenduan** batean\*.



**HARTU PARTE HEMEN:**

[laboralkutxa.com/eu/babesleak-ama-tolosa](http://laboralkutxa.com/eu/babesleak-ama-tolosa)



\*LABORAL Kutxaren bezero diren 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiak hartuko dute parte zozketan, baldin eta 2025eko martxoaren 16tik apirilaren 20ra bitartean mezu elektronikoko galderari erantzuten badiete. Zozketa, AMA Tolosa jatebako esperientzia gastronomikoen 4 sorta, 2 laguntzako bakoitza, eta gosaria barne duen 2 laguntzako ostatu-gau bat, KORTETA AGROTURISMOA establezimenduan, 2025eko maiatzaren 10erako. AMAko lantegia maiatzaren 10eko arratsaldean izango da, 18:30 aldera, eta, ondoren, afaria zerbitzatuko da. Joan-etorriak ez dira sartzen. Zozketaren data: 2025eko apirilaren 22a. Ikusi zozketaren oinarriak [laboralkutxa.eus](http://laboralkutxa.eus) webgunean.

  
**LABORAL**  
kutxa

**Bada beste modu bat**

# Labur-labur film laburren lehiaketak 400 euro baino gehiago banatuko ditu

Labur-labur film lehiaketaren hirugarren edizioa egingo da aurten Ermuan, "Sare sozialak eta estereotipoak" gaia ardatz hartuta. Bideoak aurkezteko azken eguna maiatzaren 5a izango da, eta emanaldi-gala maiatzaren 14an burutuko da Lobianon.

"Jakin badakigu gaur egungo mundu honetan itxura dela garrantzitsutzat hartzen dugun gauzetako bat. Hori-riek horrela, sare sozialetan ematen diren faltsukeriak, sinesmenak... gure artean zabaltzen dira etengabean (honelako gorputzak, halako bidaiak...). Zer duzue zuek honi buruz esateko?". Hausnarketa hori izango da aurtengo Labur-labur lehiaketaren abiapuntua, eta bertan parte hartu nahi dutenek gai horrekin lotutako ikus-entzunezko lana prestatu beharko dute.

Lan hauek hamar minutuko iraupena izan beharko dute gehienez (hasierako gortina eta kredituak barne), eta jaialdiaren kartela erakutsi beharko dute hasieran. Gainera, euskaraz izan beharko dira, eta tartean beste hizkuntzaren bat erabiliz gero, euskarazko azpitu- luak gehituko dira.

Filmak aurkezteko azken eguna maiatzaren 5a izango da, 23:59an, eta horretarako ermukogazteasanblada@gmail.com helbidera mezua bidali beharko da, eta proiektuaren esteka erantsi (YouTube, Drive, One-Drive, WeTransfer edo bestelako zerbitzua erabilia). Zalantzarik izanez gero, aipatutako helbidera idatzi

daiteke.

Lehiakideak bi kategoriatan banatuko dira: nagusiak eta batxilergoko ikasleak, eta sari ezberdinak egingo dira: 150, 100 eta 50 eur oko sariak nagusientzat,

eta 100 eta 50 euroko sariak batxilergokoentzat.

Egitasmo honen antolatzaileak diren Gazte Asanbladak eta Euskal Birusak azaldu dutenez, maiatzaren 14an, asteazkena, bideo emanaldia eta sari banaketa egingo da Lobianon.



**uriarte asesores** ✓  
Aholkularitza fiskala  
eta lege aholkularitza  
Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197

**MALLA**  
file-apaindegia  
Probaleku 8. behea © 943 17 18 50

**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

**arrai**  
Luis Cañas  
Amaren  
Cair  
Ehun  
Txakoli Astobiza  
Pazo Señorans  
Cava Oriol Rossell  
arrai@arrai97.com | Pol.Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

Cair  
Casar de Burbia  
Bodegas Valdemar  
García de Olano  
Manzanos Wines  
Pernod Ricard Wines  
Faustino García Martínez.  
T.943176075

FAMILIA  
**LUIS CAÑAS**  
BODEGAS Y VINO  
nitida

**RIF**  
ITURGINTZA  
KONPONKETAK  
Marques de Valdespina 16  
ERMUA  
605 71 10 81

## Haurreskola "Munstro Eskola" bihurtu zen



Urtero bezala, Ermuko Haurreskolan inauteriak ospatu genituen. Martxoaren 4an, gure Haurreskola munstro eskola bihurtu zen eta haurrak mota guztietako izakiz mozorrotuta iritsi ziren: gletan, era guztietako munstroak

ikusi ahal izan genituen, samurrak, kolore distiratsuekin, eta irribarre adiskidetsuekin, baina baita beldurgarriak, atzapar handiekin eta begirada maltzurarekin ere. Mozorroen aniztasunak giro dibertigarria eta koloretsua sortu zuen. Gure txikiak benetako munstroak sentitu ziren, bakoitza bere estilo eta nortasunarekin.

## Konfeti eta serpentinekin esperimentatzen



Esperimentatzea norberak gertuko testuinguruarekin elkarrekin-tzan aritzeko prozesua da: prozesu horretan, haurrak bere buruarekiko, inguruarekiko eta esperimentatzen ari den materialarekiko informazioa eskuratzen du. Esperimentazioaren bidez, umea bere kabuz saiatzten da bere jardunak ingurunean dituen ondorioak egiaztatzen. Oraingoan Haurreskolan konfeti eta serpentinak erabili ditugu eta gure haurrek ederki pasatu dute koloretako papertxoak manipulatu, airera jaurtiz, burutik behera botaz... gela kolorez eta gozamenaz bete da.

## Mugimendu librean hezi

Ermuko Haurreskolan haur bakoitza bakarra eta errepikaezina dela uste dugu, eta bere erritmoa errespetatzeko konpromisoa hartzen dugu, ikaskuntza eta garapen-prozesuan gidatzen dugun bitartean. Gure hezkuntza-filosofiarekin bat datozen hainbat korrante pedagogikoetan oinarritzen diren metodologiak praktikan jartzen ditugu. Mugimendu librea sustatzea, autonomia indartzea eta harreman afektibo seguruak lortzea dira gure lehen-tasunak, hauek funtsezkoak baitira haurren ongizate emozionalerako eta garapen sozialerako. Horregatik, ingurune seguru, eroso eta bizigarria eskaintzeko lan egiten dugu, haur bakoitzak bere potentzial guztia esploratu, deskubritu eta garatu ahal izateko, betiere, gure irakasle-taldearen laguntza eta gidaritzapean eta familien lankidetzaren aktiboarekin.



## Musikaz gozatzen

Martxoaren 17an Haurreskolako urtebetekoek eta 2 urtekoek zuzeneko kontzertu baten parte hartzeko aukera izan zuten. Begibide erromeria taldeko abeslaria eta gitarrista den Iraia Sarasua gurera etorri zen eguna alaitzera. Haurrez inguratutik egon zen Iraia, eta gitarra jotzeaz gain, gelako giroa alaitu zuen abesti eta dantzekin. Zoramena izan zen! Haur guztiak pozpozik ibili ziren. *Maite zaitut, Ikusi mendizaleak, Hanzteuden, Irrien lagunak...* moduko abestiez gozatzeko aukera izan zuten. Haur batzuk txundituta aho zabalik geratu ziren, beste batzuk abesteari ekin zioten, eta gehienak dantzari ekin zioten gelan kristoren erromeria giroa sortuz. Gure eskerrik beroenak Iraiari Haurreskolan Erromeriaren magian guztiz murgildu gintuelako.



**KARABIXA**

**KARABIXA KAFETEGIA**

Egunero zabalik  
08:30etik aurrera

**ZERMIK**  
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoko garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entrepesa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12



# Errotabarri



1930



1937

San Antoniotik Sallabentera artekoa, Gipuzkoa etorbide modura ezagutzen doguna, Urkitza parajia zan mende batzuk atzerago eta bertan izen bereko errotia euan lorratza topatzen dogu 1701eko heriotza-agiri baten. 1873an errotia eta etxia be aitxatzen daben dokumentua ageri da, “eraiki barrixa” dala zehaztuz, eta ordutik aurrera Errotabarri izena zabalduko zan herritarren artian. Estalitako errekiari gainian dauan parke eta jolasleku horretan nekez imajinau leikegu errotarri, andapara eta ubide harei esker artua eta garixa txikitzen, sasoi baten gau eta egun martxan. Bertako semia zan Roman Olañeta Onandia, 38 urte zitxuala 1937ko apirilaren 25ian “gerrako hegazkin batek jaurtitutako bomba baten leherketagatik” hil zan bertan, bere heriotza-agirixak zehazten daben modura. Errotiak martxan jarraitxu eban eta Juli Mendizabal izan zan azken errotarixa. (Lotura honetan ikusgai <https://ahotsak.eus/berriz/hizlariak/juliana-mendizabal-guenetxea/>).



2025

**quetzal**  
[arropa, bitxiak, opariak...]

www.quetzalmoda.com  
Zubiñurre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065

**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS

Toldoak / Ostalaritzako muntaiak / Instalakuntzak eta konponketak  
Pertsianak / Segurtasun pertsianak / Pertsiana dekoratiboak  
Motorizazioa / Manparak / Estoreak / Eitxo-sareak

Tailerra:  
Zearreko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com



JUAN CARLOS MARTIN

## Tweet-kolpez, gezur-kolpez

**"Ironia fina eta sarkasmoa orain fake news edo albiste faltsuen forma duten erasoak dira"**

Aurreko egunean, Goien tabernan kafea hartzen ari ginen bitartean, komentatu nuen aldaketa unean murgilduta gaudela. Nire irudipena da txio azkarren, garratzen, lotsagabeen eta ironikoen mundua eguneroko bizitzara eramán dugula, amen-omen eta gezur bihurtuta. Twitter bezalako sare sozial bat X bezalako sare sozial bat bilakatzeak (helburu bakartzat duena ondokoa kaltetzea) estaldura eman die zenbait pertsonari beren bizitzan modu berean jarduteko. Ironia fina eta sarkasmoa orain *fake news* edo albiste faltsuen forma duten erasoak dira, kaltetuaren erantzun bortitza eragin nahi dutenak, erasotua agerian uzteko. Hala daukagu gorrotatzailea edo *haterra*, gezurraz baliatuta, mindu nahi duen pertsona lotsarazteko ahaleginetan. Orain dela gutxira arte, gure gizarteak horrelako jokaerak baztertzen zituen, gure gizarte baliok ez zutelako onartzen gezurra erabiltzea norbait kaltetzeko. Gezurria agerian geratzen zen, eta gizarteak gaitzetsi egiten zuen.

Gaur egun ez da horrelakorik gertatzen. Inposatu nahi diguten (eta jadanik inposatu diguten) arrakasta neurtzeko moduak bigarren plano batean jartzen ditu helburuak lortzeko erak eta prozesuak. Garrantzitsuena iristea da, berdin dio nola. Gezurria esaten baduzu, berdin dio; besteak mintzen badituzu, berdin dio. Gezurretan oinarritutako kontakizuna ez da kontrastatzen, oso azkar kontsumitzen diren sare sozialen bitartez iristen da. Ez dago araurik, ez dago etikarik. Gorrotatzailea bera ere bere gezurraz harrotuko da, badakielako ez duela ondoriorik izango. Horregatik, berdin dio gezurria esatea immigrazioari buruz, feminismoari buruz, lankide bati buruz, eskolako kide bati buruz... Albistearen titularra iristen da, eta inork ez du denborarik ematen artikulua edukia berrikusteko. Tuit-kolpera bizi gara (X-ren posteora, hobeto esanda), eta hori da munduko ordena berria.

## OIER BEITIA IRIONDO

Ermuan jaioa duela 22 urte. Aita ermuarra du eta ama eibartarra. Bera baino lau urte nagusiagoa den arreba dauka. Lehen Hezkuntzako gradua du, Gorputz Hezkuntzako espezialitatean. Euskaraldiko dinamizatzailea da eta kirola da bere bizitzako ardatzetako bat.

Testua **DORLETA VIDAL**

### Zure haurtzaroan pentsatzean, zer datorkizu burura?

Nahiko bihurria eta mugitua nintzen, inguruko guztiak nekatzen nituen. Kanean egoten nintzen, lagunekin futboleant jolastean, eta eskolaz kanpoko ekintza askotan nentzen: esku-pilota, Txindurri, futbola... Garai oso polita izan zen, alai, eta jolasarekin lotzen dut.

### Zertan egin nahi zenuen lan?

Ez neukan ideiarik ere ez! Teknologia Batxilergoa egin nuen, baina ez nuen nire burua ikusten beste lau urtez matematika eta fisika ikasten... Kirola gustuko neukan eta arrebak esperientzia zuenez umeekin lan egiten, Lehen Hezkuntza ikastea erabaki nuen, Gorputz Hezkuntzako espezialitatean. Oso pozik nago hartutako erabakiarekin.

### Umeak gustuko dituzu?

Bai! Praktikak egin izan ditudanean eta Antxitxiketane-ko begirale ibili naizenean, oso-oso gustura egon naiz.

### Non egiten duzu lan?

Euskaraldiko dinamizatzailea naiz, eta oso pozik nago, motibatzen nauen lana baita. Bestalde, Antxitxiketane-ko koordinazio taldean nago, udalekuak prestatzen.

### Zer da dinamizatzaile lanetik gehien gustatzen zaizuna?

Herriko jende ezberdinarekin nagoela harremanetan egunero, eta esparru ezberdinetako pertsonak eta erakundeak ezagutzeko aukera izaten ari naizela.

### Eta gutxien?

Ordenagailu aurrean ordu asko eman behar izatea, aurrez aurreko hartu-emanak nahiago ditut.

### Euskaren esparruan errealitate ezberdinak ezagutzeko aukera izaten ari zara. Zein da zure ustez euskararen egoera herrian?

Lan handia dago egiteko, batzuk harreman estua dugulako euskararekin baina beste askok ez dute ezer jakin nahi, eta are gehiago, euskararekiko jarrera txarra daukate. Dena den, esan ohi da Ermua ez dela herri euskalduna, baina ez nago ados. Nire inguru oso euskalduna da, bai nire adinekoak bai nagusiagoak eta gazteagoak ere, eta herrian ditudan harreman asko euskaraz dira.

### Zer egiten duzu aisialdian?



Kirola egin, kirola ikusi eta lagunekin egon.

### Zein kirol egiten duzu?

Duela 4 urte futbola utzi nuen, eta orain mendi-lasterketetan nabil. Txikitatik gustatu izan zait korrika egitea, baina orain gogotsu hartu dut eta asko gozatzen ari naiz. 2022an egin nuen lehen lasterketa eta aurtentrenatzaile batekin lan egiten ari naiz. Egunero entrenatzen dut, eta izugarri gustatzen zait mendia.

### Zer ematen dizu, bada?

Egunerokotasuneko arazoak alde batera uzteko aukera.

### Zenbat lasterketa egiten dituzu denboraldi bakoitzean?

Aurten zazpi bat egingo ditut, eta haietako askotara lagunekin joango naiz. Maratoi erdian (21 kilometro) ibiltzen naiz normalean.

### Zein kirol jarraitzen dituzu?

Futbolzalea naiz, Athleticzalea topera, eta San Mamesen jokatzen diren partida guztiak ikusten ditut. Apirilean, Glasgowra noa lagunekin, Rangers-Athletic ikustera. Esku-pilota ere asko gustatzen zait.

### Bidaiatzea atsegin duzu?



Bai, baina bidaia motaren arabera, alfertasuna izaten dut askotan. Dolomitetara poz-pozik joango nintzateke!

### **Musikazalea zara?**

Bai, oso. Punk-rock estiloa gustatzen zait batez ere.

### **Ikusi duzun azken kontzertua?**

Non Servium, Gasteizen, otsailaren 22an.

### **Telebista, irratia...?**

Telebista: pelikula eta serie asko ikusten ditut.

### **Jatun ona zara?**

Alergia diot arrainari; hori kenduta, denetik jatun dut.

### **Platerik gustukoena?**

Ez nituzke egunero jango, baina asko gustatzen zaizkit pizzak eta hanburgesak.

### **Biziorik?**

Musika eta kirola.

### **Bertute eta akats bana?**

Esango nuke pertsona oso alaia naizela, beti brome-tan eta barre egiteko prest. Bestalde, oso burugogorra naiz, baina badakit barkamena eskatzen.

### **Eguneko zure momentua?**

Iluntzean, etxera heldu, eta sofan esertzen naizenean, lasai-lasai, eguna eginda dagoela jakinda. Entrenatzen nagoenean ere oso gustura nago.

### **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**

Inguruan edo sare sozialean bitartez injustiziaren bat ikusten dudanean, diskriminazioa, jarrera txarrak...

**"Esan ohi da Ermua ez dela herri euskalduna, baina ez nago horrekin ados"**

### **Eta zerk barrea eragin?**

Lagunek. Orain kuadrilla ezberdinetako kideok tal-detxo bat sortu dugu, eta oso gustura nago haiekin.

### **Zer eskatzen diozu lagun bati?**

Konfiantza erakustea, entzuteko eta laguntzeko prest egotea, ondoan egotea une on eta txarretan...

### **Taldean zaudenean, nahiago duzu entzun edo hitz egin?**

Momentuaren arabera, baina orokorrean hitz egitea nahiago dut.

### **Erraz haserretzen zara?**

Ez, ez dakit noiz haserretu naizen azken aldiz...

### **Puntuala zara?**

Bai, eta amorrua ematen dit besteak berandu heltzen direnean: errespetu falta iruditzen zait. Hala ere, badi-tut inguruan beti berandu heltzen diren lagunak, eta esan arren, berdin zaie, berandu heltzen jarraitzen dute.

### **Ondo moldatzen zara teknologia berrieekin?**

Bai, ordu larregi pasatzen ditut pantaila aurreran. Txikitatik jolastu izan dut bideojokoetara, eta gaur egun ere online jolasten dut sarritan lagunekin, kaskoak jarrita, beste gauza batzuei buruz hitz egiten dugun bitartean.

### **Zure bizitzako egunik zorionsuena?**

Duela urtebete Sevillara joan nintzen lagunekin aste-buru pasa, Kopako finala ikustera. Hogei lagun batu ginen, eta oso egun polita igaro genuen, ahaztezina guztiontzat. Gainera, Athleticek irabazi zuen!

### **Zein albiste irakurri nahiko zenuke?**

Faxismoaren kontrako albiste positiboren bat.

### **Berriro jaioko bazina, zerbait aldatuko zenuke?**

Ez.

### **Iragana edo etorkizuna ikusi nahiko zenuke?**

Etorkizuna ez. Agian atzera egingo nuke...

**Prоба-Leku**  
Neopaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A  
Tel.  
943170542

**ITZE**  
OPTIKA  
AUDIO




Entzumenaren doako azterketak  
Audifonoetan azkenengo teknologia

**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK  
IRAKASKUNTZA  
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendurrena 19, behea  
943 17 90 37  
enter@informaticaenter.com

**solozabal**  
tabakoak



torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



**LA FORJA KAFETEGIA**

# 1965

E R M U A

Atzean idatzita duenaren arabera, martxoaren 17an atera zen argazkia Erdiko kalean, Ongi Etorri taberna parean, Patxi taberna modura ezagunagoa zen mitiko hartan, aurreko plazatxoari izena eman ziona. Jose Luis Olañeta Martínezek eskuetatik oratuta du Javi Zuazua Zarraga, tabernako semea.



# 1975

M A L L A B I A

Argazki hau 1975koa da eta bertan agertzen da Igor Olalde Aguirregomezorta "Ardantza". Igorrek azaroaren 17an utzi gintuen, 51 urterekin. Apirilaren 12an 52 urte beteko zituen, eta bera gogoratzeko egun horretan omenaldi bat egingo zaio Mallabian, bere lagunek antolatua.

BAR  
**JUBILETXE**  
ERMUA

Hemen eskatu!



**LEIRE RASCO**  
BIZARTEGIA  
ILEAPAINDEGIA  
943 17 17 96

 @LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS  
ERMUA (BIZKAIA)

## IRAGARKI LABURRAK

### LAN ESKAINTZAK

Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika baterako, astean jardun baterako edo birako. Bidali CVa niklinika@gmail.com helbidera.

### LAN BILA

DBH eta Lehen Hezkuntzako matematikak, euskara eta beste ikasgaietako klaseak ematen ditut arratsaldez. C1 ingelesa eta euskara. 688739358

Neska euskalduna eskaintzen da haurrak goizez zein arratsaldez zaintzeko. Esperientzia eta magisteritza ikasketekin. 648625209.

Mutil langile eta arduratsuak bere burua eskaintzen du pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Atsegina eta adikorra. 632 708 954



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com  
Azken eguna: **Apirilaren 9a.**



#### Apirilaren 11n

Zorionak **Libe!!!** Sei urte beteko dituzu! Askok maite zaitugu, sagutxina. Musu erraldoi bat amama, Lucía, amatxo eta aitaxoren partez.



#### Apirilaren 19an

Zorionak **Diana!!!** Ondo pasa zure urtebetetzean. Muxu handi bat Lucía, Libe eta aitaxoren partez. Askok maite zaitugu, amatxo.



#### Martxoak 29

Zorionak **Intza!** Martxoak 29an 8 urte handi beteko dituzu! Segi beti bezain alai, potxolita! Patxo handi bat familia guztia- ren partez.



#### Apirilaren 3an

Zorionak **Oier!** 5 urte! Zure eguna lagunekin eta familiarekin ederto ospatzea espero dogu, Patxo eta besarkada handi bat! Maite zaitugu!



#### Martxoaren 18an

Zorionak **Poi!!!** Muxu erraldoi bat familia guztia- ren partez zure zazpigarren urtebetetzean. Gozatu eguna!!!

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

**MUSIKA ESKOLA**

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00  
albokamusikaeskola@hotmail.com

## Infreñu Taberna

**Kardenal Orbe plaz**  
943 174584  
www.infretaberna.com

PROTECCION LABORAL  
PLAN BARRERAKO  
ORDURA

**Goienkale kalea (Ermua)**  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

## ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Asteartetik ostiralera  
00-12:00 15:00-19:00  
arunbata 8:30-13:00

943 170474

ileapaindegia

## Silvia

peluquería

688819336



**ZINEA**

**Hilaren Setik 7ra**  
**Hilaren 12tik 14ra**  
**Hilaren 19tik 21era**  
**Hilaren 26tik 28ra**  
 Zehaztu gabeko filmeak  
 Ermua Antzokian.  
 Hainbat ordutegi.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 3**  
**Hilak 10**  
**Hilak 17**  
**Hilak 24**  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
 Ermua Antzokian.  
 20:30ean.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.  
 Laguntzailea: Mudo-drogoz  
 cinematógrafo.

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilak 6**  
**Hilak 13**  
**Hilak 20**  
**Hilak 27**  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
 Ermua Antzokian.  
 17:00etan.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.

**MUSIKA**

**Hilak 9:**  
 Udaberriko kontzertua:  
 Alboka Musika Eskolako  
 ikasleen eskutik.  
 19:00etan.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera dohainik.  
 Antolatzailea: Alboka  
 Musika Eskola.  
**Hilak 12:**  
 Udaberriko jaia, hainbat Dj-  
 ren eskutik.  
 19:00etatik.  
 Orbe Kardinalaren plazan.  
 Antolatzailea: Ermuko Den-  
 dari eta Ostalarien Elkarte.

**DANTZA**

**Euskal jaia**  
**Hilak 5:**  
**19:00** Txindurri taldearen  
 dantza erakustaldia.  
**22:00** Erromeria Itzal  
 taldearekin.  
**Hilak 6:**  
**11:00** Kalejira.  
**12:30** Dantza erakustaldia.  
**16:30** Dantza gidatu saioa.  
**17:30** Plaza dantza Ttipika  
 taldearekin.  
 Ekitaldi guztiak Orbe Kardi-  
 nalaren plazan.  
 Antolatzailea: Txindurri dan-  
 tza eta txistu taldea.

**ANTZERKIA**

**Hilak 4:**  
 "Arizona" (euskaraz), Tant-  
 taka taldearen eskutik.  
 20:30ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 10 €.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.  
**Hilak 11:**  
 "Las bingueras de Eurípides",  
 Las Niñas de Cádiz taldearen  
 eskutik.  
 20:30ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 12 €.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 1etik 13ra:**  
 "Emakumea eta Euskal  
 Pilota".  
 Lanegunetan 18:00eta-  
 tik 20:00etara. Asteburuan  
 12:00etatik 14:00etara.  
 Lobiano Kulturgunean.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala  
 eta Bizkaiko Foru Aldundia.  
**Hilaren 18tik 11ra:**  
 Pintura: Pintura eskolako  
 ikasleen lanak.  
 Lanegunetan 18:00eta-  
 tik 20:00etara. Asteburuan  
 12:00etatik 14:00etara.  
 Lobiano Kulturgunean.  
 Antolatzailea: Udal Pintura  
 Eskola.

**UMEENTZAKO  
 EKITALDIAK**

**Hilak 5:**  
 Ipuin-kontaketa ingelesez.  
 17:30ean.  
 Lobiano Kulturgunean.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.

**Patxi López**



**TXINDURRI  
 TALDEA  
 Tokian  
 tokiko**

**Otro Plan**  
**como en casa**  
 Erreserbak: 644 340 754

Iberikoetan  
 espezialistak

*Mayte*

VI Centenario 5 - ERMUA  
 943 172 412

**PRO**  
*arraindegia*



**ITSASKIAK  
 ARRAIN FRESKOAK  
 ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
 943 17 16 96  
 ERMUA



**AMALUR**  
FISIOTERAPIA

688 61 98 96  
zeharkale 12 bajo  
48260 ERMUA

IRENE ESQUE col.1665 EGOITZ FORMOSO col.1675



**irale**  
Horts Klinika  
Clínica Dental

C/ Zeharkalea, 8  
48260 Ermua, Bizkaia  
Tel. 943 17 71 34

# OSASUN GIDA



**IR AZ**  
Odontologia  
Fisioterapia

943 578 617  
615 793 717  
www.irazuklinika.com



Zuri egokitzen  
den odontologia  
La odontología  
que se adapta a tí

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04  
✉ info@clinicasanpelayo.com  
📍 San Pelayo Zeharkalea 5  
48260 Ermua (Bizkaia)



**OSTEOPATIA**  
Pablo Lucena  
Osteopata Eur Ost DO

📞 617 680 156  
info@osteopatialucena.com  
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)



**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
☎ 943 17 47 44

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,  
deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,  
edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.

# Antxustegi

Zure ametsak sukaldatzen!



[www.antxustegi.com](http://www.antxustegi.com)



Antxustegin behar duzun dena topatuko duzu. Ez eman buelta gehiagorik; zatoz eta ezagutu gure sukalde aukera zabala!



ZERAMIKA  
ETA HARRIA



LURZORU  
LAMINATUA



MARGOZTUTAKO  
PAREIRA



BAINUGELA



BURDINDEGIA



ERAKUNTZARAKO  
MATERIALAK



SUKALDEAK

Olaso Olasope, 5, industriagunea- 20870 Elgoibar - 943 743 344 / 943 740 692